

NARIZEMA KULTURA

0. Edukia

Diskriminazioa.

1. -Definizioa

Gure erdigunetik aldentzen ikasteak duen garrantzia eta zailtasuna, distantzia batetik egindako begirada, aurreiritziak gainditzen dituen, era berezian beste kultura eta herrienak.

2. -Helburuak

- Besteek begiratzen dituzten moduan begiratu.
- Pertsonak garen neurrian guztiak berdinak garela ikasi eta barnetartu eta beraz, herri eta kultura ezberdinetako kideak garenez, ezberdinak.

3. -Partaideak

5 pertsona gutxienez.

Adina: 8 urtetatik gorakoak.

4. -Materiala

Gehigarria.

5. - Hasierako aipamena

Talde handia.

6. - Garapena

J. Wilmer etnografoaren (Cortland, New York University) testua irakurri. Idatzia laurogeigarren hamarkadaren erdialdean idatzia dago, ordurarte mendebaldeak ezagutzen ez zuen kultura hau ezagutu eta bertakoekin bi hilabete igaro ostean.

Irakurri ondoren, erantzun (lehendabizi bakarka eta ondoren talde txikietan elkar adierazi) jarraian azaltzen diren bi galderak:

A. zure ustez, planetako zein zona geografikotan kokatzen da "nacirema" kultura (Sahara, Ekialde Hurbila, Asia Hego-ekialdea, Latinoamerika,..)

B. Zure/zuen erantzuna arrazoitu.

7. - Ebaluaketa

Elkar adierazi ondoren eta talde bakoitzaren azalpenaren ostean (beharrezkoa bada, "nacirema" atzekoz aurrera irakurtzeko animatuko zaie), gure kulturagandik hain ezberdinak diren kulturekin topo egiterakoan, eduki dezakegun ikuspegi etnografikoa, egon daitekeen inpaktu kulturala eta zibilizazioa garatzeko dauden balioen artean egon daitezkeen txokeren inguruan hausnartzeko eskatuko diegu. Papalagiren testua ere landu daiteke. (Integral ed. Bartzelona).

8. -Iturria

<http://amnistiacatalunya.org/edu/material/htm/nacirema-sedupaz.html>

GEHIGARRIA 1

TESTUA: NARICEMA KULTURA

"kultura honen ezaugarrietako bat zera da: oso aberatsa den inguru natural batean, merkatuko ekonomia oso garatua duen herria da. Nahiz eta ia denbora gehiengan "naricema-ndarrak" ekintza ekonomikoetan buru belarri ibili, lan guzti horren fruitu asko eta eguneko zati handi bat, erritu ekintza batera bideratzen dute. Ekintza horren oinarrian gizakiaren gorputza dago, bere itxura eta osasuna kultura honetako gizon eta emakumeen ardura nagusia bihurtzen delarik. Nahiz gorputzarekiko duten ardura, ohikoa den arren, bere inguruan dauden ideiak eta burutzen diren zeremoniak berezia (apartekoa) egiten dute.

Oinarrizko sinesmena da, sistema osoaren oinarrian dagoena, gorputza nazkagarria dela eta berezko izaeragatik, ahula eta gaixotasuna garatzeko joera duela. Gorputz horren barruan preso dagoenez, gizakiak izan dezakeen itxaropen bakarra lehen aipaturiko ezaugarriak azalera azalera ekiditea da erritu eta zeremonia horien bidez. Etxe bakoitzak helburu horretarako gela bat edo santutegi bat baino gehiago dauzka. Gizarte honetako botere gehien duten pertsonak, hainbat aldare dauzkate santutegiaren funtziorako eraiki dituzten eraikuntza.

Familia bakoitzak gutxienez horrelako santutegia daukan arren, bere baitan burutzen diren erritoak ez dira familian burutzen; hortaz, sekretuzkoak, bakarkakoa keta pribatuak dira. Orokorrean, erritoak seme alabekin bakarrik eztabaidatzen dira eta misterio horiek ikasten hasten direnean bakarrik. Hala eta guztiz ere, santutegiak ezagutzeko eta aipatzen ari naizen errituak deskribatzeko adina harreman izateko aukera izan nuen.

Santutegiko ezinbesteko elementua paretara itsatsirik dagoen kaxa edo kutxa bat da; hainbat edabe magiko eta sorginkeri dauzkate eta natiboak hauek gabe ezingo lukete bizi. Ukendu hauek, espezialista ezberdinek prestatzen dituzte. Hauen artean, medikuntzalariak daude eta beraien laguntza ordaintzeko opari garrantzitsuak ematen zaizkie. Hala ere, medikuntzalariak ez dizkiete beren bezeroei zuzenean ukendu sendagarririk ematen; horren ordez, zein osagai izan behar duen erabaki eta idazten du hizkuntza zaharkitu eta sekretuan. Hizkuntza hori eta idatzi horiek medikuntzalariak eta belar-dendako langileek bakarrik argitu dezakete; azken hauek dira, opari garrantzitsu baten ostean, bezeroari behar duten edabea emateko arduradunak.

Erabili ostean, sorginkeria/edabea ez da botatzen, familiaren santutegiko sorginkeria kaxan gordetzen da. Material magiko bakoitza, gaixotasun zehatz baterako dela kontutan izanik, eta kontutan izanda "nacirema"-tarren benetako nahiz irudimenezko gaixotasunak asko direla kontutan izanik, sorginkeria kaxa gainezka egon ohi da.

Hainbeste pakete majiko dauzkate nacirema-tarrek, beraien erabilpen eta egitekoa zein zuten ere ahazten dutela batzutan eta beldur dira berriz

erabiltzerako orduan. Gai honetan natiboak ez zutenez oso argi azaldu, suposa dezakegun gauza bakarra zera da: *(2 Aukera)*

1.- produktu magiko zaharkitu guztiak gordetzeko arrazoia, hauen presentzia, gurtzailea era batean edo bestean babestua izango denaren ustea da.

2.- Uste baitute, gurtzailea era batean edo bestean babestua izango dela produktu magiko zaharkitu guztiak sorgindutako kaxan gorde ezkeru

Sorginkeria kaxaren azpian konketa (palangana) txiki bat dago. Egunero, etxeko kide bakoitzak hurrenez hurren eta bakarka santutegian sartzen dira, sorginkeriaren kaxaren aurrean burua makurtu, ur sakratu ezberdinak nahasten dituzte konketan eta garbiketa erritual motz bat burutzen dute. Ur sakratuak, komunitatearen Uraren Tenplutik datoz, bertan, naciema kulturako apaizek, aipatzen ari garen likido hau erritu bidez garbitzeko zeremonia konplexu batzuk burutzen dituzte

(John Wilmer-en informea; Cartland, New York University, "En Pie de Paz" aldizkarian argitaratua ekaina-uztaila 187, 6.zbkian(gazteleraz)